

 **144.16.** Adimendun sistemak

(...)

Probatu diren algoritmoek zenbait neurri parametrizatzen dituzte, hala nola mugimendu arraroak eta adierazpen-keinuak, eta adierazle gisa erabiltzen dira horiek. Bada, adierazleokin, sistemak modu autonomoan erabaki dezake zein den larrialdi-egoera jakin batetik irteteko ebakuazio-bide azkar eta segurua.

Bideozaintza-kamerekin, tokian dauden pertsonen mugimenduak eta keinuak identifikatzeko eta interpretatzeko gai da sistema, bai eta alarma-egoerak detektatzeko ere, hustuketa-protokolo hoberena abiatzeari begira. Horrela, hustu behar den jendearen portaeraren jarraipena egiten du, informazio hori partekatzen du, eta pertsona horiek dauden tokiraino gidatzen ditu segurtasuneko langileak.

Halaber, sistemak seinaleztapen-elementu dinamikoak jartzen ditu ebakuazio-bideetan, harrapatuta dauden pertsonak irteera onenerantz gidatzeko. Tekniker-ek, bada, erraz instalatzen den eta energia gutxi kontsumitzen duen haririk gabeko komunikazio-sistema seguru eta eraginkor hori garatu du, zeina esparruko hormetan, ateetan eta lurzoruetan jartzen diren hiru koloreko (berdea, horia eta gorria) gailu argidunek osatzen duten. Seinale horiek unean uneko ebakuazio-bide aktiboenera (seguruenera) bideratzen dituzte harrapatuta geratutako pertsonak. Horrela, hustuketa-denbora murrizteaz gain, eremu arriskutsuak saihesten eta ebakuatutakoak une oro salbu edukitzen laguntzen da.

(...)